

ALPEAK TXANGO BAT BAINO GEHIAGO

TESTU ETA ARGAZKIAK




Iñigo Santxo Monzon
(Algorta, 1987)

Gaztetatik, mendi irteera, natura eta bidaia zalea da. Tarteka, lanak denbora librean uzten dionean, motxila egin eta furguon ihesaldiak egitea du gustuko. Kobxe karneta eskuratu eta berehala, Añamendietara eta Alpeetara txangoak egiten hasi zen. Besteak beste, aipatzekoak dira, 19 urterekin Mont Blanc 4000koen bidetik eta 2017ko neguan Monte Rosa mendi garaietara burututako igoerak. Eskien gainean Piriniotan hamaika zeharkaldi eta Alpeetan dozena bat txango burutu izan ditu.

Potentzia barik berriz ere, ogerleko asko balio dituen furgoneta arazotan. Bordeletik hurbil autopistan barraskiloen pare, hau da desgrazia. Alpeetara txangoa ilusio handiz prestatua genuen hilabete batzuk atzera eta 3 astez gure etxea izango den furgoneta baldarra. Nola edo hala Suitzara heldu gara, ordura arte ikusitako postal ederrenen sorburu eta ametsetako txokolatearen paradisura. Gure asmoa Alpeetako bizpahiru gune bisitatzea da; Suitzan Oberland eta Valais eskualdeak, Monte Rosa mendi multzoa Italiako Aosta eskualdean eta azkenik Mont Blancen oinarrian ezarrita dagoen Chamonix hiria, kontraesanez jantzitako harana.



Berna, Thun, Interlaken eta Oberlandeko lakuak bizikletaz bisitatu ostean, Kandersteg izeneko herrira hurbildu gara. Errepidean aurrera goazela, bihurgune bakoitzaren ostean, mendi zati handiago bat deskubritzen dugu. Ostendutako mendia zatika agerian uztearen magia. Ozen oroitzen dut, bizipenak argi oroitzeko baino, ozen oroitzeko ahalmena baitut, Muñarrikolanda mendi taldearekin Luz-Saint-Sauver herritik gora errepidean egindako bidea. "Aiko!, Casco mendia da hori!" batek ozen, hurrengo bihurgunean "Txo!, hor Rolandeko Bretxa dau" ozenago ondokoak... Nire aurreneko bidaia Auñamendietara. Hor zeuden liburuetan hainbat aldiz berrikusitako Taillón eta Gabietoak, Gavarnie herria eta bere hormatzarra, Marboré eta Astazouak... Bideaz gozatu nuen aurreneko aldi horretan bezalatsu nabil orain Suitzan.



Euriak mimo handiz loditutako lantarretatik gora deskubritzen dugun haitz eta glaziar munduak txoratzen gaitu

Izugarri polita da Kandersteg herri gainean egin dugun mendi txangoa. Oeschinensee laku glaziarretik gorago, Bluemlisalp aterpera doan bidea ederra da. Ez daukagu gailurrik jotzeko asmorik, ezta beharrik ere. Euriak mimo handiz loditutako lantarretatik gora deskubritzen dugun haitz eta glaziar munduak txoratzen gaitu. Zenbat janzten duen glaziar batek mendi ingurua! Mikelek kantatzen zigunez "ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona". Gure Auñamendi ederretan, zoritxarrez, badoa glaziarrak. Hemen gaudelarik, hain dimentsio handiko izotz puska horren gertutik ikusteko aukera izatean hunkitzeraino mututzen gara. Bero sargoria medio, planifikatutakoa baino beherago ematen dugu buelta Kandersteg herrirantz. Aurreko eguneko kanpinaren ondoan aparkatzen dugu furgoneta, wifi seinale ahula baina nahikoa etxekoekin komunikatzeko: "Ederra benetan", "Hurrengoan zatotze!", "Ondo ari garela bazkaltzen, ama!".

Furgonetaren motorra pizten dugun bakoitzean, aspaldi ahaztutako jainkoez oroi-tu eta errezo egiten diegu. Akaso gaurkoan, gu bezalako ateo bitaz erruki eta furgonetari dagokion potentzia emango dioten esperantzaz nonbait... bai ze! Aldapa gora kasik 60 km orduko abiadura harrapatzea lortu dugu FurkaPass mendi lepo ikaragarriaren malde-tan gora. Motorra berotu da, furgoneta bazterrean gelditu, hozten utzi eta ostera ere saiatu. Oso nekatuta heldu gara Valaisera, gogoz eta animoz nekatuta. Eta potentzia galera gutxi balitz, euriak ez du etenik. Fiesch herri sarre-ran egin dugu lo errepide bazterreko parking batean. Aukeratutako gunea ez dago bate-re txarto, komun garbia daukagu eskura eta gaez aparkatzea debalde da. Goizeko hirure-tan itzartu gara... "baie ze osti! Ure sartzen ari da ta!". Mekaguenka toalla batzuk ipini txarto isolatutako leihoaren azpian eta neke psiko-logikoaren motxilarako beste kilo bat. Felixek behin esan zuen: "Bihar ere egunak argituko du eta ilusio berriak landuko ditugu". Maisu eta erreferente, arrazoil! Egunak eder argitu

Mendizale bi Felikhorn. Castorrera doan ertzaren hasiera






zuen, urak ez zuen horrenbeste hondatu koltxoia eta tira, furgonetaren potentzia galerak ez zigun guztiz bidaia baldintzatuko.

Weissmieseko glaziarraren gunerik apurtuetan erne eta kontu handiz goaz

Saastal haranerako bidean Suitzako Valais eskualdeko herri eta bailarez zipriztinduz goaz. Etxeetako arkitektura ederra da eta ezin zain-



duagoz landez inguraturik daude, izugarritzko lasaitasun sentsazioa transmititzen digu furgonetaren joanean leihoaren betaldean ikusten dugunak, postaletako Suitza. Eguerdia aldera Saas Grund herrian sartu gara kotxe karabana sortuz. Potentzia falta, badakizue.

Oso herri turistikoak dira Saas Grund eta Saas Fee. Mendi eder eta altuez inguraturik bizi dira eta sarritan, 4000 metro garaierako mendiak aurreneko aldiz zapaldu gurean dau den mendizaleak hona datoz, gailurra jotzea ez omen da hain zaila. Valais mendi multzoa Alpeetan dagoen inguru oso bisitatua da. Mendizaleari hamaika aukera eskaintzen dizkio, denak ala denak ederrak. Hala ere, egiarizor, mendizaleok bertan burutu ohi ditugun igoerak esku batekin zenba daitezke, gehientsuenok leku berdinetara joaten baikara. Denak trebetasuna eta zailtasunaren aldetik interes bakoak, baina esperientzia eta oroitzapen ezin ederragoa bizitzeko aproposak.

Weissmies mendiko serac-etan, izotz zubiak igaroz eta kordarekin ondokoaren mugimenduak babestuz, txikitan TB aurrean

ikusten nituen "Oinak Izarretan" dokumentaletako paisaietara egiten dut salto. Zer edertasun! Cabestanyren Auñamendietan saioaz oroitzen naiz, baina gehien bat Iñurategi anaiek sorturiko "Oinak Izarretan" dokumental sortaz. Izugarritzko paisaia ederrak erakusten zizkiguten gipuzkoar anaiek, ezohikoa den naturaltasun eta mendiarekiko balore etiko eta solidarioekin. "Aspaldiko" mendizaleak berarekin zekartzan hausnarketa eta gogoetek harrapatu ninduten. Iñurategitarrek 90. hamarkadan egindakoa gaurkotzen badugu, Euskal Herriko mugetatik haratagoko mendi zaletuengan harridura sortuko luke. Hogeita gutxi urterekin zer nolako naturaltasunez ibiltzen ziren Himalaiatik.

Gressoney herrietatik gora Lyskamm mendien hego aurpegiak 3000 metrora altxatzen dira



Kreuzbodenetik begira, Allalinhorn eta Alphubel

Guk urte gutxi batzuk gehiago ditugu, ez askoz gehiago, eta gure Himalaia zein den badakigu, bakoitzak berea aurkitu behar du eta umil gozatu gure mugen barruan dauden aukerekin. Nahikarik aurreneko aldia du izotz puska arteko bideetan. Weissmieseko glaziarraren gunerik apurtuetan erne eta kontu handiz goaz. Nahiz eta uztaileko bigarren astean gauden, mendiak elur asko dauka, maiatzean aurkitu ohi diren neurrikoak mendi-gidari batek esan digunaren arabera. Weissmieseko aldapa gogorak igoerako parte teknikoenarekin bat egiten du. Aurtengo uda hasierak elur asko ekarri du 3000 metrotik gora. Izotz zubietan kontu handiz goaz zer zapaltzen dugun kontuan izanik eta aldiro gora bideratzen ditugu begiradak, elurrez lepo dauden ertzek eutsiko ez dieten beldur. Aurreko egunetan 4000 metrotik gora egindako ibilaldiak eskertzen ditugu, gure gorputzak altuera honetara ondo egokituta baitaude. Behin glaziarreko parterik gordina igarota bidea errazten da. Ez diogu erlojuari erreparatzen, inguruari adi goaz, gozatzen.

Zein eder azken maldek sortzen duten irudia. Aurrez aurre, Allalinhorn, Alphubel, Nadelhorn eta Dom mendi paregabeak. Zorionez elurretan arrastoa zabalik dago eta gailurra zapaltzeko aukera izan dugu. Gailurretik bistak itzelak dira. Lau mendizale multzo batu gara tontorrean, eta lautik bi ezetz asmatu? Bai, euskaldunak.

Nahikari bueltatuko da, hau beste askoren aurrenekoa dela ikusten dut bere irribarre eta begietan. Horrela izaten da gehienetan. Telekabina azpian utzi ditugu goizaldean bizikletak. Mendiko botak kendu gabe, haietan montatu eta bagoaz herriaren amaieran dagoen kanpinera merezitako deskantsua hartzera. Furgonetaren arazoez ahaztu gara, potentzia falta, uraren filtrazioa ohe gainera... mendian egun ederra igarostean buruan zerbaitek "klik" egin eta beste lasaitasun batekin aurre egiten zaio egunari.

Eramangaitz bezain barregarria. Esango nuke jada grazia egiten digula furgonetak arrankatzen duenean potentzia galera sumatzeak. "Beitu hortxe gure potentzia galera", "ez da konpondu ondiño"... ezer egin barik konpontzeko aukerarik balego bezala. Ba, guk, masoka tontopareak, Aostara gurutzatzeko 42 km-ko luzerako mendi errepede lepoa aukeratu dugu. Ederra bai, baina 2 tonako furgotzarrak bereak eta bi behar izan ditu gurutzatzeko.

Felik eta Castor mendien arteko ertza izugarri polita da, zailtasun handi gabekoa, luzea eta bista ederrekoa

Lys bailara txundigarria da. Gressoney herrietatik gora Lyskamm mendien hego aurpe-

Ufen Stock mendi piramidala eta Wyssi Frau mendiei begira





Weissmies glaziarreko seracak

giak 3000 metrora altxatzen dira eta sekula ez dut ahaztuko 2012an aurreneko aldiz ikusi nituenean sorrarazi zidan harridura. Alpeetan egingo dugun mendi txangoekin amaitzeko, masifikazio gutxiago duen Castor mendiaren ertza egitera goaz. Egia esan, pandemiak alde onik ekarri badu, mendian jende askorik ez dabilela da, Monte Rosako mendi multzo hau oso bisitatutako gunea izan ohi da. Quintino Sella aterperako bidean apenas bi mendizalerekin gurutzatu gara. Uste baino gehiago kostatu zaigu aterpera heltzea, elur putzuetan sakon hondoratu gara eta. Eguraldia tira, ez da parte onekoa eta ez dugu atsedendaldietan inguruko bidez gozatzeko aukerarik. Potentzia faltan goaz, astun.

Arratsaldeko 19:30ak aldera sukaldetik hurbilen dagoen mahaian batu dira mendi gidariak. Aterpe honetan mendi gidarientzako askaria egiten da ordu honetan. Bezero dituztenak aparte esertzen dira gidariek askaria noiz amaituko zain. Aterpe bakoitzak dauka


bere “modus operandia” mendi gidariekiko. Esaterako Ecrinsen, afalostean sukalde barrura sartzen dira eta bertan berbetan aritzen dira. Gidariak badu prestigioa Alpeetan, eta prestigioarekin batera tratu berezi bat.

Gauerdian izugarritzko elur ekaitza lehertu da. Zarata, ikara sortzeko modukoa. Eta pentsa genezakeen moduan elurretan arrastoa desagertu da. Oraindik egunak ez du argitu eta haizeak gogor jotzen du goietan. Lyskamm gaineko hodeiak arin pasatzen dira isuri batetik bestera. Hortaz, presa handirik gabe gosalduta eta prestatu gara kanpora ateratzeko. Gure aurretik doazen mendizale denek Passo del Nasso leporako bidea hartu dute, Gniffetti aterperantz. Gu, mendebaldera desbideratuko gara, Felik leporantz. Teknikoki bidea sinplea da, ez du zailtasunik, baina goizaldean, Algortako mendi gidari ezagun batek esan digunez, “poliespan” moduko elurrarekin kontuz ibiltzeko, oso faltsua baita. Felik eta Castor mendien arteko ertza izuga-

rri polita da. Zailtasun handi gabekoa, luzea, bista ederrekoa eta, gaurkoan gainera, guretzako bakarrik! Atzetik italiar zoro bat dator segika. Baldar erori zaizkio gailurretik behera plastikozko botila eta barrita baten plastikoa. Telefonoa hartu eta gutxi ulertutakoren arabera kontatu dizkio lagun bati igogeraren nondik norakoak. Italiarrak apur bat desitxuratu du gailurreko momentua, baina egindako bidea hain ederra suertatu zaigu ez diogula garrantzi handirik eman.

Bideak jada ez du garrantzirik nonbait, eta mendiaren edertasuna metroetan neurtzen hasiak gara

Bazkalordurako furgonetara ailegatu gara. Zapore ezin gozoagoa utzi digu egun bi hauetan egindako lanak; aterperako igoe-



Azkenik, hausnarketarako baliogarri gertatu zaizkidan datu xebebreak: furgoneta baldarrean hara-hona 57 ordu igaro ditugu, mendian egindako orduak 43 izan dira eta gailurretan igarotakoa apenas 2. Mendian igarotako denboraren gehiengo bidean eman dugula kontuan izanik, bideaz gozatzera behartuta gaude. Eta bestalde, xuhurkeriak alde batera utzi eta "filtro de partículas" delakoa furgonetan konpontzeak merezi du. Pentsa zer izan litekeen 57 ordu indar gabeko furgoneta batean oporraldi bat igarotzea.

ra grisa eta gailurreko italiarrari ez dizkiegu apenas lerrorik eskainiko egunerokoan. Mimo handiz ertzean emandako momentuak ondo islatzen saiatu gara. Egun horretako koadernotik errekuperatua: "Zelango zortea dekokun. Izan be, mendien igarotako momentuak ordainezinak dira eta ibilian aberastuz goaz". Eta bidearen zelan eta nolako horretan daude bizitzaren gatza eta piperra, mendian bezala. Azken aldia zenbakiz josi digute mendiaren kosmosa baita! "Eztakit-zenbat pultsaziorekin igo behar dut nire errendimendua hobetzeko", "nire desnibel igotze erritmoa eztakit-zenbat metro ordukoa da", "nire nutrizionistak esan berri dit hau eta hori ez jateko datorren urtean Mont Blancera igo nahi badut", "aurten 185.000 metro desnibel igo ditut"... askotan aurrez ditugun mendien izenak ahaztu egiten zaizkigula. Bideak jada ez du garrantzirik nonbait, eta mendiaren edertasuna metroetan neurtzen hasiak gara.

Eguna sortzen Quintino Sella aterpetik. Atzean, Lyskamm mendiak. Urrunago Gnifetti gaineko gailurrak

